KOMUNIKAZIO BERDINZALERAKO JARRAIBIDEEN GIDA:

Ahozko, idatzizko eta irudi bidezko komunikazioa Hernaniko Udalean

Hernaniko Udala



Egileak: elhuyar Aholkularitza · Hernaniko Udala

Erabilitako iturri nagusia: “Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako jarraibideak”. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011.

Urtea: 2017

Aurkibidea

1. Sarrera 5

2. Zergatik zaindu behar dugu komunikazioa? 6

3. Araudi-markoa 7

4. Komunikazio berdinzalerako jarraibideak 8

4.1. Generoarekin lotutako hitzak aldatzea, genero-bereizketa identifikatzeko 8

4.2. Lanbideak genero bakar batekin identifikatzea saihestea 8

4.3. Maskulino generikoa ez erabiltzea 9

4.4. “Gizon” izena generiko gisa ez erabiltzea 9

4.5. “-gizon” atzizki bezala ez erabiltzea 10

4.6. Bikote-izenak erabiltzea 10

4.7. Agiri administratiboetan, “jauna” izena ez erabiltzea 11

4.8. Hartzaileak talde mistoa direnean, hitanoaren forma maskulinoa ez erabiltzea 11

4.9. “-sa” atzizkia ez erabiltzea 12

4.10. Gaztelaniatik eratorritako kalkoak ez erabiltzea 12

4.11. Iragarki eta kanpainetan sexuak zehaztea 13

4.12. Ustezko gizaki neutro unibertsala ez erabiltzea 13

4.13. Emakumezko eta gizonezkoei beti pareko trataera ematea 14

4.14. Pertsonen egoera zibilari ez ematea trataera berezia 15

4.15. Ahaidetasun-erreferentzia alferrikakoak ez erabiltzea 15

4.16. Emakumeen arteko aniztasuna agerian jartzea 16

4.17. Sexuaren araberako ezaugarri ezberdinak ez erabiltzea 17

4.18. Sexuaren araberako balorazio ezberdinak ez egitea 18

4.19. Femeninoaren erabilera estereotipatua eta peioratiboa ez egitea 18

4.20. Pertsonen bi abizenak jartzea 19

5. Gaztelaniazko komunikazio berdinzalerako jarraibideak 20

5.1. Eludir el masculino genérico 20

5.2. Omitir referencias directas al sexo del sujeto 22

5.3. Omitir o sustituir los pronombres y los artículos 22

5.4. Usar sustantivos genéricos o colectivos y sustantivos abstractos 23

5.5. Usar los dos géneros gramaticales: dobles formas 23

5.6. Omitir el uso de los “falsos genéricos” 24

5.7. Utilizar las aposiciones explicativas incluyentes 24

6. Irudi bidezko komunikaziorako jarraibideak 25

1. Sarrera

Hizkuntza komunikazio sistema bat da eta bere bitartez **ideiak, pentsamenduak eta sentimenduak** adierazten ditugu, hau da, tokian tokiko errealitate soziokulturala irudikatzen dugu. Gizartea aldatzen doan heinean, hizkuntza ere aldatu egiten da; eta era berean, hizkuntzak bizi dugun errealitatea eraldatzen lagundu dezake, egiten dugun erabileraren arabera.

Hizkuntzak errealitatea islatzeaz gain, **errealitatea eraiki** ere egiten du, beraz. Horrela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-harremanak hizkuntzan islatzen diren modu berean, komunikatzeko erabiltzen dugun erak harreman horiek eraldatzen lagunduko du edo aitzitik, desberdintasunak iraunarazten.

Izan ere, **arazoa ez da hizkuntza** bera, egiten dugun erabilera baizik. Hizkuntzaren erabilera sexista eta androzentrikoa egiten dugu gizarte sexista eta androzentriko batean bizi garelako. Hizkuntzaren sexismoa ez dago hizkuntzaren baitan, hiztunaren errepresentazio mentalean, gure buruan, baizik. Oztopoak ideologikoak dira.

Elhuyar Aholkularitzak Hernaniko Udaleko Berdintasun Arloarekin elkarlanean egindako gida honetan joera horietaz jabetu eta horiek saihesteko **jarraibide eta adibideak** proposatzen ditugu.

Zergatik zaindu behar dugu komunikazioa?

2. Zergatik zaindu behar dugu komunikazioa?

- **Hizkuntzak eraikuntza sozialak** direlako eta hauen erabilera ez delako neutroa. Hizkuntzak errealitatea islatzeaz gain, sortu ere egiten duelako.
- **Hernaniko Udala** erakunde publikoa den neurrian, **eredu izan behar** duelako. Berdintasuna gure balioen artean dagoelako eta, gizarte hobea lortzeko konpromisoa dugunez, gizarte-erantzukizuna dugula sinesten dugulako.
- **Diskriminaziorik ez eragiteko**. Erabiltzen dugun komunikazioak emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako balioak islatu behar dituelako.
- Lehen eta bigarren mailako **herritarren arteko mailaketarik ez** egiteko. Pertsona guztiei trataera, protagonismo eta balio bera emateko.
- Emakumeen ikusezintasuna iraultzeko eta emakumeen artean dagoen **aniztasuna ikusarazteko**.
- Generoaren araberako **rol-banaketa tradizionalekin hausteko**, estereotipoei aurre egiteko eta berdintasuna sustatzeko.
- **Gizarte-balioak eraldatzeko**. Gizarte-eredu sexista eta androzentriko batetik berdintasunezko eredu batera igarotzen laguntzeko.
- Nazioarteko, Europako eta gure testuinguru hurbileko **araudiek ezarritako obligazioak** betearazteko.
- Udalak egiten duen komunikazio guztietan arau eta irizpide berdinak erabiltzeko, **koherentziaz jokatzeko**.
- Erakundean (barnera nahiz kanpora begira) **berdintasunaren kultura zabaltzeko**.
- Berdintasunaren alde erakundeak hartutako **bidean lanean jarraitzeko**.

3. Araudi-markoa

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, politika publikoen esparruan gomendioak eta arauak garatu dira.

NAZIOARTEAN

- **UNESCOren 1987 eta 1989ko biltzar orokorretan** diskriminatzailea ez den hizkuntzaren erabilerarako estrategiak martxan jartzea eskatzen zaie gobernuei.

EUROPAN

- **Gomendio europarra, 1990eko otsailaren 21ekoa**, hizkuntzan sexismoa deuseztatzeari buruzkoa, eta administrazio-testuei berariazko aipamena egiten diona.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

- 2005eko otsailaren 18ko **4/2005 Legea**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, komunikazio sexistaren erabilera debekatzen duena.
- EAE-ko Emakumeen eta Gizonen **Berdintasunerako VI. Plana**, komunikazio ez-sexista eta barneratzailerako berariazko gomendioak txertatzen dituena.

GIPUZKOA

- Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen **Berdintasunerako II. Foru Plana**, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta barneratzailerako berariazko neurriak jasotzen dituena.
- **Hernaniko Udalaren II. Berdintasun Plana**, non Udalak eduki sexistarik gabeko hizkuntza, irudi eta edukiak erabiliko dituela bermatzeko estrategia zehazten den.

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4. Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.1. Generoarekin lotutako hitzak aldatzea, genero-bereizketa identifikatzeko

Euskarak ez du genero gramatikalik baina, halere, gaztelaniaren eraginaren ondorioz, modu sexistan erabiltzen da maiz. Bi erabilera desegoki dira aipatzekoak:

- Gizonak izendatzeko formak orokortzea: semeak, erregeak, boluntarioak, anaiak...
- Izen neutroak sexu batekin identifikatzea: dekanoa, futbolaria... gizonekin; eta erizaina, garbitzailea... emakumeekin.

Genero-bereizketa hau identifikatzeko eta saihesteko, gizonekin erlazionatzen ditugun hitzak jarri ordez emakumeekin erlazionatzen ditugun hitzak jar ditzakegu, eta alderantziz.

Esaldia

- Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara...
- Festan gonbidatuak eta beren emazteak...

Ordezkapena

- Guztiok gara euskaldun, guztiok ahizpak gara...
- Festan gonbidatuak eta beren senarrak...

4.2. Lanbideak genero bakar batekin identifikatzea saihestea

Androzentrismoaren eta sexismoaren ondorioz, sarri gizarte-zeregin, lanbide eta kargu jakinak sexu batekin erlazionatzen ditugu. Lanbideak edo zereginak izendatzerakoan kontuan izan behar dugu emakumeentzat zein gizonentzat izan daitezkeela. Adibidez, haurren heziketari edo osasunari buruzko oharrak amei soilik bideratzea saihestu.

Emakumeak	Gizonak
• Sendagileak, futbolariak, arkitektoa, nagusia...	• Idazkaria, garbitzailea, ileapaintzailea...

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.3. Maskulino generikoa ez erabiltzea

Gaztelaniaren eraginez, emakumeez eta gizonez osatutako taldeak izendatzeko maskulino plurala erabiltzen da maiz euskaraz ere. Maskulino honek ez ditu emakumeak barneratzen eta sinbolikoki gizonengan pentsatzen ari garelako erabiltzen dugu sarri.

Oker	Zuen
• Zuen semeentzako kontu bereziak ditugu	• Zuen seme-alabentzako kontu bereziak ditugu
• Kaixo, jaunak!	• Kaixo, jaun-andreak!

4.4. “Gizon” izena generiko gisa ez erabiltzea

Askotan “gizon” izena emakumeak eta gizonak izendatzeko erabiltzen da generiko gisa. Horrela egitean, emakumeak gutxiesten ditugu eta ikusezin bihurtu. Kasu hauetan, “gizona” espezifiko moduan erabili behar da, berdin “gizonezko” edo “gizaseme” izenak.

Oker	Zuen
• Gizonaren ohiturak	• Emakumeen eta gizonen/ pertsonen ohiturak
• Gizasemeak fin aritu ziren lasterketa guztian	• Korrikalariak fin aritu ziren lasterketa guztian

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.5. “-gizon” atzizki bezala ez erabiltzea

Ez da “-gizon” atzizkia generiko gisa erabili behar, gizonak bakarrik izendatzen dituelako. Izen berriak sortu beharko ditugu, “-ari”, “-gile” edo “-le” atzizkiak edo “langile” hitza erabiliz.

Oker	Zuzen
• Legegizonek ez dituzte neurriak hartu	• Legelariek ez dituzte neurriak hartu
• Plazagizonak dira bertsolariak	• Plazandrea da Maialen Lujanbio/ Plazagizona da Andoni Egaña

4.6. Bikote-izenak erabiltzea

Euskarak berezkoa duen joerari eutsi behar zaio, bikote-izenak erabiliz.

Oker	Zuzen
• Semeak	• Seme-alabak
• Jaunak	• Jaun-andreak
• Erregeak	• Errege-erreginak

4.7. Agiri administratiboetan, “jauna” izena ez erabiltzea

Agiri administratibo askotan “jauna” izena erabiltzen da mezua zeini zuzentzen zaion jakin gabe. Euskarak duen jaun-andre bokatiboa edo ezer ere ez erabiltzea proposatzen da.

Oker	Zuzen
• Zuzendari/alkate/sailburu jauna:	• Zuzendari/alkate/sailburu jaun-andrea: • Zuzendaria:/Alkatea:/Sailburua:

4.8. Hartzaileak talde mistoa direnean, hitanoaren forma maskulinoa ez erabiltzea

Mezuaren hartzaileak gizonezkoak edo emakumezkoak direnean, aditzak marka ezberdina eramango du. Hartzaileak talde mistoa direnean (emakume nahiz gizon), zuka edo inperatiboa erabili daiteke.

Oker	Zuzen
• Izena eman ezak udaletxean. • Azterketa egin ezak.	• Eman izena udaletxean. • Azterketa egin ezazu.

4.9. “-sa” atzizkia ez erabiltzea

Zubereraz erabiltzen den arren, euskara batuan ez da erabili behar izen eta adjektiboek genero gramatikalik ez daukatelako. Beraz, generoa zehaztu nahi bada, neska/mutil edo gizon/emakume erantsi behar da.

Oker	Zuzen
• Alkatesa etorri da bisitan. • Aktoresa onenaren saria eman diote.	• Alkatea etorri da bisitan. • Aktore onenaren saria eman diote. • Mutil dantzaria/ alkate andrea (generoa zehaztu nahi denean).

4.10. Gaztelaniatik eratorritako kalkoak ez erabiltzea

Gaztelaniaz maskulino orokortzailea saihesteko maiz “persona” edo “personas” hitzak erabiltzen dira; euskaraz, ordea, ez da beharrezkoa “pertsona” hitza erabiltzea. Era berean, euskararen kasuan ez da beharrezkoa izen eta adjektiboetan generoa markatzea.

Oker	Zuzen
• Beka jaso duten pertsonak • Oso teknikari maja da.	• Bekadunak/ beka jaso dutenak • Oso teknikari jatorra da.

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.11. Iragarki eta kanpainetan sexuak zehaztea

Interesgarri ikusten denean, iragarki eta kanpainetan emakumeak eta gizonak espresuki aipatuko dira.

Hitanoa erabiliz gero, toka eta noka erabiliko dira.

Gomendioa

- Pilota-ikastaroan 8-12 urte bitarteko neska-mutilek eman dezakete izena.
- Aizan! Aizak! Etor hadi gurekin udalekuetara!

4.12. Ustezko gizaki neutro unibertsala ez erabiltzea

Pentsamendu androzentrikoaren eraginez, gizona azaltzen da erreferentziazko subjektu modura, beti emakumeenak baino garrantzitsuagoak diren paper, balio eta gaitasunekin. Gogoan izan gizartea emakumezko eta gizonezkoek osatzen dutela, eta ez errealitatean izaerarik ez duen ustezko gizaki neutro batek.

Oker

- Greziarrek bozka eskubidea zuten.

Zuzen

- Antzinako Grezian gizonek bozka eskubidea zuten.

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.13. Emakumezko eta gizonezkoei beti pareko trataera ematea

Ez aurkeztea gizonak ekintza guztien erdigunean eta emakumeak haien menpeko gisa, emakumeak ere ikusaraziz eta ez baztertuz, eta batzuen nahiz besteen izen-abizenak jartzerakoan tratamendu berdina emanez.

Oker	Zuzen
• Martinez jaunaren andereak bere senarraren diskurtsoa adi-adi entzun zuen.	• Leire Manterolak idazkari nagusiaren diskurtsoa adi-adi entzun zuen.
• Gutuna Urrutia jaunaren emaztearentzat da.	• Gutuna Edurne Uriarentzat da.
• Bi alemaniar eta euren emazteak etorri ziren.	• Bi bikote alemaniar etorri ziren.
• Apaolaza eta Miren joan dira kontzertura.	• Apaolaza eta Arratibel joan dira kontzertura.

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.14. Pertsonen egoera zibilari ez ematea trataera berezia

"Andre" edo "andere"/"andereño" izenak emakumeen egoera zibila adierazteko erabili izan dira. Gaur egun, ordea, emakumeen kasuan ez da "andereño" erabiliko, eta "andrea" eta "jauna" erabiliko dira kasu guztietarako.

Oker	Zuzen
• Maria Alkorta andereñoa. • Jon Ibargarai jauna eta Enara Agirre andereñoa.	• Maria Alkorta andrea. • Jon Ibargarai jauna eta Enara Agirre andrea.

4.15. Ahaidetasun-erreferentzia alferrikakoak ez erabiltzea

Ez da komeni alferrikako senidetasun-erreferentziarik erabiltzea (alaba, emazte...).

Oker	Zuzen
• Isidro Garziandia eta bere emaztea larri zauritu ziren.	• Isidro Garziandia eta Jazinta Agirre larri zauritu ziren. • Isidro Garziandia eta Jazinta Agirre senar-emazteak larri zauritu ziren.

Komunikazio berdinzalerako jarraibideak

4.16. Emakumeen arteko aniztasuna agerian jartzea

Emakumeak aparteko kolektibo edo gutxiengo bezala agertzea ekidin behar da. Emakumeak gizartearen erdia baino gehiago dira, eta kolektibo eta talde ezberdinetan daude. Emakumeak ere anitzak dira, ez dago emakume izateko eredu bakar bat, eta hobe da singularrean baino pluralean aipatzea: “emakumeak”.

Oker	Zuzen
• Diru-laguntzak jubilatu, etorkin, langabetu, gazte eta emakumeentzat izango dira. • Bertsolari askok parte hartu zuten, emakumeek ere bai.	• Diru-laguntzak jubilatu, etorkin, langabetu eta gazteentzat izango dira. • Emakume eta gizon bertsolari askok parte hartu zuten.

4.17. Sexuaren araberako ezaugarri ezberdinak ez erabiltzea

Emakumeak estetika, itxura fisikoa, familia edota tradizionalki femeninotzat hartu diren lanbideekin zerikusia duten ezaugarriekin lotuta agertzen dira, rol pasiboetan. Gizonak, aldiz, gai intelektual eta enpleguarekin zerikusia duten kontuetan agertzen dira, rol aktiboetan. Emakumeen inguruan zerbait esan aurretik, komenigarria litzateke pentsatzea gizonak balira gauza bera esango genukeen.

Oker	Zuzen
• Maite Lekue zuzendaria beti eder eta dotore jantzita doa agerraldietara.	• Maite Lekue zuzendaria doan agerraldietan...
• Jendea behar da, zainketa eta afektibitate arloan emakumeak bezain trebeak.	• Profesionalak behar dira zainketa eta giza harremanen arloan.
• Brad Pitt aktorea eta bere emaztea Angelina Jolie, beti bezain lirain, aurkeztu ziren Oscarretako festan.	• Brad Pitt eta Angelina Jolie aktoreak Oscarretako festara joan ziren.

4.18. Sexuaren araberako balorazio ezberdinak ez egitea

Androzentrismoaren eta sexismoaren eraginez, askotan emakumeak egiten edo esaten duenari balioa kentzen zaio, gutxietsi egiten da, objektu edo bigarren mailako zerbait bezala hartzen dira, emakumeak izate hutsagatik. Ezinbestekoa da emakumeak behar bezala baloratzea, pertsonen arabera dagozkien gaitasun, trebetasun eta bestelako ezaugarriak aintzat hartuz.

Gomendioa

- Eider Moral, ekonomialari ezaguna, departamentuko zuzendaria da.
- Maider Zabala alkate bikainak jardunaldia zuzenduko du.

4.19. Femeninoaren erabilera estereotipatua eta peioratiboa ez egitea

Emakumeekiko mespretxua hitz, esaera, atsotitz eta hainbat espresiotan azaltzen da, kutsu edo ñabardura ezberdinekin erabiltzen direnak gizon edo emakumeei egokitzen bazaizkie.

- **Emakumeak gutxiesten dituztenak:**

Oker

- Ez duzue potrorik hori egiteko.
- Taldea hiru gizonek eta bi neskek osatzen dute.
- Alaba baino, semea hobe!

- **Erro femeninotik sortutako hitzak eta beste sexuarentzat baliokiderik ez dutenak:**

Oker

- Emagaldua, andereño...

- **Erro maskulinotik sortutako hitzak eta beste sexuarentzat baliokiderik ez dutenak:**

Oker	Zuzen
• Anaitasuna, anaiartea...	• Senidetasuna, ahaidetasuna...

- **Itxurazko bikoteak, esanahi ezberdina dutena gizonentzat eta emakumeentzat:**

Oker
• Gizalege (begirunea)/Emalege (hilekoa)
• Gizatxar (gaiztoa)/ Ematxar (prostituta)

4.20. Pertsonen bi abizenak jartzea

Pertsonen izen-abizenak jartzerakoan, bi gurasoko familien kasuan, bi gurasoen abizenak jartzea gomendatzen da; eta, guraso bakarreko familien kasuan, gurasoaren bi abizenak aipatzea.

Gomendioa
• Mertxe Andueza Gorostidi andrea izango da Udaltzaingoaren arduradun berria.
• Jai Batzordeko kide den Lur Gartzia Agirrek aurkeztu du festetako egitaraua.

5. Gaztelaniazko komunikazio berdinzalerako jarraibideak

Gaztelaniazko komunikazioari dagokionez, orain arte aipatutako jarraibide guztiak hartuko ditugu aintzat, gaztelaniaren erabilerarako ere baliagarriak direlako. Halere, badaude irizpide batzuk gaztelaniaren erabilerarekin lotuta daudenak soilik. Horiek dira, hain juxtu, kapitulu honetan jaso ditugunak.

Lehenengo atalean, forma maskulinoa modu generikoan erabiltzea saihesteko estrategien adibideak jaso ditugu eta, bigarren ataletik aurrera, estrategia horietako bakoitza modu sakonagoan azaldu dugu.

5.1. Eludir el masculino genérico

En castellano el uso abusivo e indiscriminado del masculino genérico crea confusión y ambigüedad. Además, se utiliza cargado de un androcentrismo lingüístico que confunde lo masculino con lo universal, excluyendo e invisibilizando a las mujeres.

Por tanto, considerar que el masculino genérico se refiere también a las mujeres es erróneo. Muchas veces usamos el masculino porque simbólicamente estamos pensando en hombres, y no en mujeres y hombres.

En la siguiente tabla se recogen algunos ejemplos prácticos para eludir el masculino genérico:

Evitar	Usar
• Los opositores de la plaza del Ayuntamiento de Hernani	• Las opositoras y los opositores de la plaza del Ayuntamiento de Hernani • Las personas opositoras de la plaza del Ayuntamiento de Hernani • Quienes hagan la oposición de la plaza del Ayuntamiento de Hernani
• Firma del interesado	• Firma de la persona interesada

Gaztelaniazko komunikazio berdinzalerako jarraibideak

• Los ciudadanos de Hernani	• Las ciudadanas y los ciudadanos de Hernani • La ciudadanía de Hernani
• Los trabajadores de la empresa	• La plantilla de la empresa • Quienes trabajan en la empresa • Los trabajadores y las trabajadoras de la empresa
• Los técnicos del Ayuntamiento	• El personal técnico del Ayuntamiento • El equipo técnico del Ayuntamiento • Los técnicos y las técnicas del Ayuntamiento
• Los socios de la asociación	• Las personas asociadas de la asociación • Las y los socios de la asociación • Quienes conforman la asociación
• Los solicitantes de la ayuda	• Quienes solicitan la ayuda • Las personas solicitantes de la ayuda • Solicitantes de la ayuda
• Los usuarios del equipamiento	• Las personas usuarias del equipamiento • Quienes usan el equipamiento • Las usuarias y los usuarios del equipamiento
• Los jóvenes del municipio	• La juventud del municipio • Jóvenes del municipio • Los y las jóvenes del municipio
• Los presidentes de las sociedades	• Las presidencias de las sociedades • Quienes presiden las sociedades • Los presidentes y las presidentas de las sociedades

5.2. Omitir referencias directas al sexo del sujeto

Según la redacción de las frases, se puede eliminar la referencia al sexo de la persona implicada sin afectar en absoluto al mensaje. Esto es posible mediante la utilización de la forma impersonal “se”, la utilización de infinitos y gerundios o la eliminación de masculinos que no añaden información.

Evitar	Usar
• Cuando el usuario solicite la ayuda	• Cuando se solicite la ayuda/ Al solicitar la ayuda
• Los habitantes pueden presentar la documentación	• Se podrá presentar la documentación

5.3. Omitir o sustituir los pronombres y los artículos

Para evitar construcciones lingüísticas sexistas, se pueden omitir artículos o sustituirlos por pronombres sin marca de género.

Evitar	Usar
• Optarán a la convocatoria los profesionales del sector	• Optarán a la convocatoria profesionales del sector
• Los participantes en las pruebas	• Quienes participen en las pruebas
• Los proveedores de nuestro servicio	• Quienes proveen nuestro servicio

5.4. Usar sustantivos genéricos o colectivos y sustantivos abstractos

Consiste en recurrir a palabras o expresiones que engloban ambos sexos. Muchos cargos, profesiones, titulaciones, oficios, etc. pueden sustituirse de esta manera.

Evitar	Usar
• Los políticos	• La representación política
• El obligado, el contratante	• La parte obligada, la parte contratante
• El adjudicatario	• La empresa adjudicataria
• Los hernaniarras	• La población de Hernani
• Los trabajadores	• El personal/ la plantilla
• El firmante	• La persona que firma

5.5. Usar los dos géneros gramaticales: dobles formas

Se puede utilizar el masculino y el femenino para representar grupos mixtos. Así se logra eliminar la ambigüedad o visibilizar explícitamente a las mujeres. Se recomienda utilizarlos alternando el orden, concordando siempre con el último término.

Usar
• Las técnicas y los técnicos de las áreas
• Los y las trabajadoras del ayuntamiento
• Las usuarias y los usuarios del servicio

- Las y los comerciantes hernaniarras

5.6. Omitir el uso de los “falsos genéricos”

Hay que tener en cuenta que existen “falsos genéricos”, palabras que a veces se presentan como genéricas cuando no lo son y que deben, por lo tanto, evitarse.

Evitar	Usar
• Derechos del hombre • Las edades del hombre	• Derechos humanos • Las edades de la humanidad

5.7. Utilizar las aposiciones explicativas incluyentes

Esta pauta sirve para aclarar el significado de la palabra a la que se refiere en caso de que sea conveniente, evitando las ambigüedades o incluyendo y visibilizando tanto a mujeres como a hombres.

Recomendación

- Obstáculos para jóvenes, mujeres y hombres, en el alquiler…
- Obstáculos para jóvenes, de uno y otro sexo, en el alquiler…

6. Irudi bidezko komunikaziorako jarraibideak

- Pertsonak agertzen diren irudi guztietan **zaindu behar da ematen den mezua**, edozein dela ere hauen adina, etnia, erlijioa, aniztasun funtzionala edo bestelako ezaugarria.
- **Emakumeak ikusgarri egitea** bilatu behar da. Emakumeak ez dira ezkutuan geratu behar, baizik eta irudietan agertu egin behar dira, gizartearen aniztasuna islatuz.
- Erabiltzen diren irudietan **gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna** ager dadin bermatu behar da, bai irudi- edo ilustrazio-kopuruan (eta maiztasunean), baita hauetan agertzen diren errepresentazioetan ere (tamaina, planoa, kokapena, etab.).
- Maskulinizatutako edota feminizatutako espazioetan **emakumeak eta gizonak agertu** behar dira. Eremu horietan ere tokia dutela agertu behar da.
- Eredu maskulinoak indartzen dituzten irudiak alde batera utzi eta **bi generoak aintzat hartzen dituztenak** edota neutroak direnak erabili behar dira.
- Emakume-**eredu ezberdinak ikustarazi** behar dira, ez soilik emakume gazte eta lirainaren eredua. Errealitatea aurkeztu behar da emakumeen artean dagoen aniztasuna agerian jarriz (jatorria, adina, gorputz-ereduak, aniztasun funtzionala, etab.).
- **Emakumeak tradizionalki bete ez dituzten rol eta jardueratan** agertzea komeni da. Rol tradizionalak agertzen diren kasuak (etxeko lanak, zaintza-lanak, etab.) eredu berriekin uztartu (ordenagailuarekin, autoa konpontzen, lantegiko lanak egiten...) behar dira.
- **Gizonak tradizionalki bete ez dituzten rol eta jardueratan** agertzea komeni da. Rol tradizionalak agertzen diren kasuak (tailerrean, futbolean,

tabernan...) eredu berriekin uztartu (haurrak bainatzen, bazkaria prestatzen, gurasoak zaintzen...) behar dira.

- Emakumeen eta gizonen arteko **harremanak berdintasunean** agertu behar dira, eta ez menpekotasun-egoeran. Gizonak aginte moduan edota emakumeak menpeko edo/eta objektu bezala ez dira agertu behar.
- **Emakumeen arteko harremanak** emakume-kategoriari egozten zaizkion **estereotiporik gabe** (elkarri izorratzen, txutxu-mutxuka, etab.) agertu behar dira.
- **Gizonen arteko harremanak** gizon-kategoriari egozten zaizkion **estereotiporik gabe** (ausardiaz, indar erakustaldian, lehian...) agertu behar dira.
- **Ikonoak erabiltzen direnean neutroak** erabili behar dira, edo bestela emakumeak eta gizonak agertzen dituztenak.